

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Baterien birkarga izugarri azkartzeko bidea aurkitu dute

TELEFONO ERAMANGARRIAREN bateria hamar segundoan edo ibilgailu elektrikoarena bost minutuan kargatzea ametsa da oraindik, baina laster errealitatea bihur daiteke. MITeko (Massachusetts-eko Teknologia Institutua, AEB) Gerbrand Ceder eta Byoungwoo Kang ikerlariek lortutako sistemarekin bateriak 100 aldiz lasterrago karga daitezke, gaur egun ohikoa dena baino.

Egungo aparatu elektronikoetako bateria guztiak litiozkoak dira eta horren arrazoiak masa unitateko pilatu dezaketen energia kantitate handian datza. Korrante elektrikoa bi elektrodoren arteko ioi-zirkulazioa baino ez da, hau da, anodoan pilatuta dauden ioiak katodorantzko bidea egitean sortzen da korrante elektrikoa. Beraz, bateria batek kargatzeko edo energia askatzeko duen azkartasuna ioien araberakoa izango da.

Ikerlariek, *Nature* aldizkarian azaldu dutenez, katodoaren egitura aldatu dute. Litiozkoaren orde, burdinazko eta litio fosfatozko aleazioz egindako katodoa osatu dute, aipatutako emaitzak lortuz.

Eraikitako prototipoan, bateria hogeitasei segundoan kargatzen da. Bateria berak, katodo klasikoarekin, sei minututik gora behar du kargatzeko. Esan gabe doa enpresa askok saiakera honenganako interesa agertu dutela, eta laster merkatuan emaitzak ikusi ahal izango direla seguruenik.



Asmatutako sistemarekin 100 aldiz arinago kargatu ahal izango dira eskuko telefonoen bateriak.

USB giltzak, etxeko giltzen antzera

LA CIE enpresa frantziarrak etxeetako giltzen itxura duten hiru USB eredu berri kaleratu ditu. ItsaKey, iamaKey eta PassKey izeneko eredu horiek lau edo zortzi gigabyte-eko informazioa meta ditzakete, eta PC edo Mac-etan erabil daitezke. Transferentzia abiadura oso handia da: 30 Megabyte segundoko, eredurik azkarrenean. 10 eurotik 30 eurora bitarteko salneurria dute. Metalez egin dituzte, desgasteari eta kolpeei aurre egiteko, eta LaCieren web-gunean eros daitezke.

Ilargi barnean ur gutxi omen dago

Ohioko Unibertsitateko (AEB) C. K. Shum irakasleak ilargiari buruz inoiz egindako azterketa sakonena egin du, bereizmen handiko mapak erabiliz. Ondorioa, besteak beste, ilargiaren barruan ur gutxi dagoela izan da. Shumek osatutako mapa berriak ibilgailu-roboten ilargitik ibiltzen lagundu ahal izango die etorkizunean. <http://ttiki.com/2681>

Nazioarteko espazio estazioa arriskuan zaborraren eraginez

Martxoaren 12an, arratsaldeko 16:30ean, Nazioarteko Espazio-Estazioko (ISS) hiru astronautek urgentziatzko kapsulan sartu behar izan zuten hamar minutuz, ezustean agertutako hondakin espazial batzuek estazioarekin talka egin eta presiogabetzea eragiteko arriskua zela eta. <http://ttiki.com/2682>

Itsas mailaren igoerak New York mehatxatzen du

Mende honetan itsasoko ur maila handitzeko dagoen arriskuaz etekin gabe ohartarazten digute ikerlariek. Eredu batzuek besteak baino arrisku gehiago dute, eta horien artean New York dugu. Metropolitik lur gehienak itsas mailatik 40 zentimetrora daude, eta Manhattangoak 12,5 zentimetrora baino ez. <http://ttiki.com/2684>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16